



2024SECG0007
7.bilera: OHIKOA 2024/09/19

TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN BILKURA-AKTA

BILERA ZK.: 7/2024
EGUNA: 2024/06/20
HASIERA ORDUA: 12:00
AMAIERA ORDUA: :12:15
TOKIA: Bilera gela, 2. solairua.

BERTARATUAK:

Alazne Txurruka Allika, alkatea.
Asier Urain Buenetxea, lehen alkateordea.
Jon Riaño Ojanguren, bigarren alkateordea.

Bertaratzea desenkusutzen dute:

Monica de Prado Paniagua, hirugarren alkateordea.
Isidro Aristi Oruezabal, Elkarrekin Orain Deba

Idazkaria: Jose Luis Salaberri Iñarra

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

1. Aurreko bilkuraren akta onartzea, hala badagokio.

Aurkeztu ziren, 2024ko ekainaren 20an eginiko bileraren akta, eta, gai-zerrendarako gairik ez zegoelako, 2024ko uztailaren 18an egin behar zen bilera ez zela egin jasotzen duen eginbidea, Tokiko Gobernu Batzarrak, onar zitzan.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, onartu zituen 2024ko ekainaren 20an eginiko bileraren akta eta 2024ko uztailaren 18ko bilerari dagokion eginbidea .

2.- Berdeguneen kontratua. (Debako udalerriko soropilak, lorategiak, zuhaitzak eta berdeguneak mantentzeko zerbitzua gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezientzat eta araututako gizarteratze-enpresentzat erreserbatua_2021SCOU0025 espedientea)

Alkateak azaldu zuen kontratua 2025eko maiatzan amaitzen dela, baina kontratuak urtebeteko bi luzapen egiteko aukera jasotzen duela.

Kontratua horren harira, lorategien kudeaketaren inguruan kexa bat egon zela, eta proposatu zela bi kontratu desberdin egitea, alde batetik soropilen, zuhaitzen eta berdeguneen mantentze-lanetarako, eta, bestetik, lorategien mantentze-lanetarako. Horiek horrela,

kontuan hartuta, kontratuaren zenbatekoagatik, kontratazio-espeditze horren izapidetzea luzea dela, indarrean dagoen kontratua amaitu aurretik kontratu berriak eduki ahal izateko, komeni zela ahalik eta lasterren erabakitzea egungo kontratua luzatzeko aukera erabiltzen den edo, aitzitik, kontratazio-espeditze berriak hasten diren.

Idazkariak azaldu zuen Sektore publikoko kontratuen legeak ezartzen duela egiten diren kontratuen zenbatekoaren gutxieneko ehuneko bat erreserbatu behar dela gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezientzako eta laneratze-enpresentzako, desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatuan sar daitezzen sustatzeko. Debako Udalak, kontratu horrekin obligazio hori betetzen duela, eta kontratu berriak egiten badira kontutan hartu beharko dela obligazio hori. Bestalde, azaldu zuen, bi kontratu egiteak ez duela bermatzen bi kontratu horien esleipenduna enpresa bera izango ez denik, eta, indarrean dagoen kontratuaren pleguetan nahiko garbi jasotzen dela lorategien kudeaketa nola egin behar den, eta arazoa ez dagoela kontratuan bertan, baizik eta kontrola nola egiten den.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, erabaki zuen kontratua urtebetez luzatzeko aukera erabiltzea, eta, ahal den neurrian, kontratuaren kontrola indartzea, horretarako kontratuaren arduradun bat izendatuz.

3. Eskari eta galderak.

Ez ziren egon.

Horrenbestez, beste aztergairik ez zegoenez, 12:15ean amaitu zen Tokiko Gobernu Batzarraren bilera.

Joseluis Salaberri Iñarra
Idazkaria



Alazne Txurruka Aliko
Alkatea

